Prestatu eta trebatzeko ikastaroak

OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

5633

EBAZPENA, 2008ko irailaren 18koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako deia egiten duena.

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, bere 33. artikuluan ezartzen duena betez, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak aldiro antolatzen ditu hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko ohiko deialdiak, dekretu honen esparruan zehazten diren Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen zerbitzuan diharduten langileek hizkuntza-eskakizuna egiazta dezaten.

Halaber, uztailaren 29ko 152/2008 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko hizkuntza-normalkuntzarako prozesua arautzen duenak, bere 15.2.b) paragrafoan ezartzen duena betez, Justizia Administrazioaren zerbitzuko Kudeaketa, Izapidetze eta Laguntza Judizialeko, Auzitegiko Medikuen kidegoko eta Laborategiko Laguntzaileen kidegoko funtzionarioek ere aukera dute Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak aldiro antolatzen dituen hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdietara aurkezteko.

Bestalde, 1999ko otsailaren 18ko dataz, Aginte Judizialaren Kontseilu Gorenak eta Eusko Jaurlaritzak, Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zenbait arlotan euskararen erabilera normalizatzeari buruzko lankidetza-hitzarmena sinatu zuten.

Lankidetza-hitzarmen honetako bosgarren klausulak bide ematen die Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko karrera judizialeko kideei Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko antolatzen dituen deialdietara aurkezteko.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko Karrera Fiskaleko eta Idazkarien Kidegoko kideek euskara ikasi eta hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeari begira, 2005eko uztailaren 28an lankidetza-hitzarmena sinatu zuten honakook: Justizia Ministerioak, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak, eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak.

Cursos de Formación y Perfeccionamiento

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

5633

RESOLUCIÓN de 18 de septiembre de 2008, del Director del Instituto Vasco de Administración Pública, por la que se convocan pruebas de acreditación de perfiles lingüísticos.

En cumplimiento de lo establecido en el artículo 33 del Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, el Instituto Vasco de Administración Pública realiza periódicamente convocatorias ordinarias destinadas a la acreditación de perfiles lingüísticos por parte del personal al servicio de las administraciones de la Comunidad Autónoma de Euskadi incluidas en el ámbito de aplicación de dicho decreto.

Asímismo, en cumplimiento de lo establecido en el párrafo 15.2.b) del Decreto 152/2008, de 29 de julio, por el que se regula el proceso de normalización lingüística de la Administración de Justicia en la Comunidad Autónoma de Euskadi, los funcionarios y las funcionarias de los Cuerpos de Gestores, Tramitadores y Auxiliadores Judiciales al servicio de la Administración de Justicia, Cuerpo de Médicos forenses y Cuerpo de Ayudantes de Laboratorio también pueden presentarse a las pruebas de acreditación de perfiles lingüísticos que periódicamente realiza el Instituto Vasco de Administración Pública.

Por otro lado, con fecha de 18 de febrero de 1999 se firmó un convenio de colaboración entre el Consejo General del Poder Judicial y el Gobierno Vasco, a través de la Dirección de Relaciones con la Administración de Justicia, sobre normalización del uso del euskera en determinados ámbitos de la Administración de Justicia de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La cláusula quinta de este convenio de colaboración da opción a los miembros de la carrera judicial de la Administración de Justicia de la Comunidad Autónoma del País Vasco a presentarse a las convocatorias de acreditación de perfiles lingüísticos que organiza el Instituto Vasco de Administración Pública.

Igualmente, con fecha de 28 de julio de 2005, se firmó un convenio de colaboración entre el Ministerio de Justicia, el Departamento de Hacienda y Administración Pública, y el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, con el fin de que los miembros de la Carrera Fiscal y del Cuerpo de Secretarios Judiciales de la Comunidad Autónoma del País Vasco tengan opción de aprender euskera y de acreditar los perfiles lingüísticos.

Justizia Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzak sinatutako lankidetza-hitzarmen horrek, laugarren klausularen bidez, aukera ematen die Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko Karrera Fiskaleko eta Idazkariren Kidegoko kideei hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko antolatzen diren deialdietara aurkezteko.

Orobat, 2008ko martxoaren 14ko dataz, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak eta Osakidetzak hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko arloan akordioa sinatu zuten. Akordio horren ondorioz, Osakidetzako langile finko eta interinoek aukera izango dute IVAPeko 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko deialdietara aurkezteko, beti ere lanpostuan 4. hizkuntza-eskakizuna badute ezarrita, edota IVAPek antolatzen duen 4. hizkuntza-eskakizuneko ikastaroa egina badaukate edo egiten ari badira. Baldintza horietako bat betetzeaz gain, Osakidetzako langile horiek IVAPek 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko deialdian jarritako baldintza orokorrak bete beharko dituzte.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak aldiro deitzen dituen ohiko deialdietan onartua izateko, ezinbestekotzat jotzen da eskatzaileak gutxieneko euskara maila izatea, kasuan kasuko hizkuntza-gaitasunari buruzko ikas-programen arabera. Administrazio-jardueraren goiburu izan behar duen eraginkortasunari zor zaionagatik, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak iraupen laburreko proba objektiboen bidez neurtuko du eskatzailearen ezagupen-maila, giza bitartekoen ahaleginak eta baliabide materialak alferrik gal ez ditzan, ez Administrazioak, ezta azterketa-egileak ere.

Helburu horrekin lotuta, lehen, bigarren, hirugarren edo laugarren hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketetara aurkeztu ahal izateko euskararen gutxieneko ezagupen-maila izatea eskatzen da. Horrela bada, lehen, bigarren, hirugarren edo laugarren hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketetarako eskaera egiten dutenek atariko proba gainditu behar dute deialdian onartua izateko.

Jaurlaritzaren Kontseiluak 2008ko apirilaren 8an egindako bilkuran 64/2008 Dekretua onartu du, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzekoa. Dekretuak IVAPek deitutako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko proben egituraketari eragiten dio.

64/2008 Dekretuaren bigarren xedapen iragankorrak ezartzen duenez, elkarren artean baliokidetuko diren euskararen gaitasuna egiaztatzen duten titulu eta ziurtagiriak eskuratzeko probak urtebeteko epean egokitu egingo dira, horietako bakoitzak parekatuta dagoen Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren mailarekin bat egin dezan. Hori dela eta, deialdi honetan egingo diren probak, hau da, egokitze epean

El citado convenio de colaboración entre el Ministerio de Justicia y el Gobierno Vasco, en su cláusula cuarta, posibilita a los Miembros de la Carrera Fiscal y del Cuerpo de Secretarios Judiciales de la Comunidad Autónoma del País Vasco presentarse a las convocatorias que se convocan para la acreditación de perfiles lingüísticos.

Asimismo, con fecha 14 de marzo de 2008, el Instituto Vasco de Administración Pública y Osakidetza firmaron un acuerdo en materia de acreditación de perfiles lingüísticos, por el que tanto los trabajadores fijos como interinos de Osakidetza podrán presentarse a las convocatorias de acreditación del perfil lingüístico 4, siempre que el mismo esté asignado a su puesto de trabajo, o hayan realizado o estén realizando el curso correspondiente a dicho perfil lingüístico organizado por el IVAP. Además de cumplir uno de estos requisitos, estos trabajadores de Osakidetza tendrán que cumplir los requisitos generales establecidos por el IVAP en la convocatoria de perfiles lingüísticos.

Para ser admitido en las convocatorias de acreditación de perfiles lingüísticos que periódicamente organiza el Instituto Vasco de Administración Pública, es preciso que el solicitante tenga un nivel mínimo de conocimiento de euskera, a tenor de lo establecido para cada caso en los programas de capacitación lingüística. En razón del principio de eficacia, principio rector de la actuación administrativa, y para que no haya una pérdida de esfuerzos humanos y materiales, tanto para la propia Administración, como para quien se presenta a estas pruebas, el Instituto Vasco de Administración Pública medirá este nivel mínimo de conocimiento del solicitante mediante una prueba objetiva.

Con este fin, se pide tener un nivel mínimo de conocimiento de euskera para presentarse a las pruebas de acreditación de los perfiles lingüísticos uno, dos, tres y cuatro. Así, aquellos que realicen la solicitud para presentarse a las pruebas de acreditación de los perfiles lingüísticos uno, dos, tres y cuatro deberán superar una prueba preliminar para quedar admitidos en la convocatoria.

En reunión celebrada el pasado 8 de abril de 2008, el Consejo de Gobierno aprobó el Decreto 64/2008, de 8 de abril, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera, y adecuación de los mismos al Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas, Decreto que incide en la configuración de las pruebas de acreditación de perfiles convocadas por este Instituto.

Por un lado, la Disposición Transitoria segunda del citado Decreto 64/2008, establece que las pruebas destinadas a la obtención de los títulos y certificados acreditativos de conocimiento de euskera que son objeto de convalidación se adaptarán en el plazo de un año, con el fin de que cada uno de ellos se adecue al nivel del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas con el que está equiparado. Por ello, las pruebas que

egingo direnak, orain arteko sistemaren araberakoak izango dira.

Bestalde, esandako apirilaren 8ko 64/2008 Dekretuaren bigarren indargabetze xedapenak indarrik gabe uzten du EAEko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 33. artikuluko 8. paragrafoa, ohiko deialdietako konparaziozko azterketak ezarri eta arautzen dituena. Ondorioz, aipatutako erabakia betez, deialdi honetan ez da konparaziozko azterketetarako deirik egingo.

Azkenik, 86/1997 Dekretuaren 33. artikuluak arautzen duena betez, deialdi honetako oinarriak eta hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketen emaitzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen web orrian argitaratuko dira. Gainerako ebazpenak, hau da, onartuen eta baztertuen zerrenda dakarrena (behin-behinekoa eta behin betikoa), Epaimahaia ezagutzera eman eta azterketen egutegia zehazten duena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen web orrian bakarrik argitaratuko dira.

Horiek horrela, aipatutako araudia betez, hauxe

EBATZI DUT:

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzearren euskara probak egiteko 2008. urteari dagokion bigarren deialdia onartzea, eranskinean agertzen diren oinarrien arabera.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko irailaren 18a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
JON KOLDOBIKA URRUTIA MINGO.

como las presentes, se arbitren en el periodo de adaptación, seguirán remitiéndose a los sistemas existentes anteriormente.

Por otro lado, la Disposición Derogatoria segunda del citado Decreto 64/2008 deroga el apartado 8 del artículo 33 del Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, apartado en el que se establecen y regulan las pruebas de contraste. En cumplimiento pues, de tal determinación, la presente convocatoria no incluye la previsión de pruebas de contraste.

Finalmente, en cumplimiento de lo establecido en el artículo 33 del Decreto 86/1997, las bases de esta convocatoria y los resultados de los exámenes de acreditación de perfiles lingüísticos se publicarán en el Boletin Oficial del País Vasco y en la página web del Instituto Vasco de Administración Pública. El resto de las resoluciones, es decir, la que da a conocer la lista de admitidos y excluidos (la provisional y la definitiva), y la que da a conocer la composición del Tribunal y fija el calendario de los exámenes, sólo se publicarán en la página web del Instituto Vasco de Administración Pública.

Por todo ello, en cumplimiento de la normativa citada,

RESUELVO:

Aprobar la segunda convocatoria de pruebas de conocimiento de euskera destinadas a la acreditación de los perfiles lingüísticos correspondiente al año 2008, de acuerdo con las bases que figuran en el anexo.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Resolución entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 18 de septiembre de 2008.

El Director del Instituto Vasco de Administración Pública,
JON KOLDOBIKA URRUTIA MINGO.

I. ERANSKINA

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO DEIALDIAREN EBAZPENARENA

OINARRIAK

1. oinarria.– Deialdi honen bidez deitutako azterketetara aurkeztu ahal izango dira:

– Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren ezarpen-esparru barruko Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren zerbitzuan diharduten langileak.

– Justizi Administrazioaren zerbitzuko Kudeaketa, Izapidetze eta Laguntza Judizialeko, Auzitegiko Medikuen kidegoko eta Laborategiko Laguntzaileen kidegoko funtzionarioek, uztailaren 29ko 152/2008 Dekretuaren 15.2.b) paragrafoak ezartzen duena betez.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko karrera judizialeko kide, kidegai, behin-behineko epaile, ordezko magistratu, ordezko epaile eta bake-epaileak, 1999ko otsailaren 18ko dataz, Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren bitartez, Aginte Judizialaren Kontseilu Gorenak eta Eusko Jaurlaritzak sinatu zuten lankidetza-hitzarmenaren bosgarren klausulak ahalbideratzen duena betez.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko Karrera Fiskaleko kide eta kidegaiak, ordezko fiskalak, Idazkari Judizialen Kidegoko kide eta kidegaiak, eta behin-behineko Idazkari Judizialak, 2005eko uztailaren 28an Justizia Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzak sinatutako lankidetza-hitzarmenak ezartzen duena betez.

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak eta Osakidetzak 2008ko martxoaren 14an sinatutako Akordioa betez, Akordioak zehazten dituen Osakidetzako langileek aukera izango dute IVAPeko 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probetara aurkezteko.

2. oinarria.– Deialdi honek lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko aukera ematen du. Edozein modutara, azterketarigaiek hizkuntza-eskakizun bakarreko azterketa egin ahal izango dute.

3. oinarria.– Xede eta burubiderik gabeko azterketarik ez egitearren, deialdi honetan lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren hizkuntza-eskakizunetara aurkeztu ahal izateko euskararen gutxieneko ezagupen-maila izatea eskatzen da. Gutxieneko ezagupen-maila hori atariko probaren bidez neurtuko da. Atariko proba desberdina izango da egiaztatu nahi den hizkuntza-eskakizunaren arabera, eta proba hau gainditzen dutenak bakarrik izango dira onartuta deialdian.

Halaber, proba hau egitera aurkeztu eta gainditzen ez dutenak, deialdiko baztertuen zerrendan agertuko

ANEXO I

DE LA RESOLUCIÓN DE LA CONVOCATORIA DE ACREDITACIÓN DE PERFILES LINGÜÍSTICOS

BASES

Base 1.ª.– Se podrán presentar a los exámenes de esta convocatoria los siguientes colectivos:

– El personal al servicio de las administraciones de la Comunidad Autónoma de Euskadi incluidas en el ámbito de aplicación del Decreto 86/1997, de 15 de abril.

– Los funcionarios y las funcionarias de los Cuerpos de Gestores, Tramitadores y Auxiliadores Judiciales al servicio de la Administración de Justicia, Cuerpo de Médicos forenses y Cuerpo de Ayudantes de Laboratorio en cumplimiento de lo establecido en el párrafo 15.2.b) del Decreto 152/2008, de 29 de julio.

– Los miembros de la carrera judicial, de los aspirantes a la carrera judicial, de los jueces de provisión temporal, de los magistrados suplentes, de los jueces sustitutos y de los jueces de paz, en virtud de la cláusula quinta del convenio de colaboración firmado con fecha de 18 de febrero de 1999 entre el Consejo General del Poder Judicial y el Gobierno Vasco, a través de la Dirección de Relaciones con la Administración de Justicia.

– Los miembros de la Carrera Fiscal, de los aspirantes a la Carrera Fiscal, de los fiscales sustitutos, del Cuerpo de Secretarios Judiciales, de aspirantes al Cuerpo de Secretarios Judiciales y de Secretarios Judiciales de provisión temporal de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en virtud del convenio de colaboración firmado entre el Ministerio de Justicia y el Gobierno Vasco el 28 de julio de 2005.

– En cumplimiento del Acuerdo firmado el 14 de marzo de 2008 por el Instituto Vasco de Administración Pública y Osakidetza, los trabajadores de Osakidetza señalados en el Acuerdo podrán presentarse a las pruebas de acreditación del perfil lingüístico 4 del IVAP.

Base 2.ª.– Esta convocatoria posibilita la acreditación de los perfiles lingüísticos uno, dos, tres y cuatro. En cualquier caso, los solicitantes sólo podrán realizar el examen de un único perfil lingüístico.

Base 3.ª.– Con el fin de evitar la realización de pruebas carentes de todo fundamento y finalidad, en esta convocatoria, para presentarse a los exámenes de los perfiles lingüísticos uno, dos, tres y cuatro es necesario tener un nivel mínimo de conocimiento de euskera. Este nivel mínimo de conocimiento será diferente en función del perfil lingüístico que se quiera acreditar. Dicho conocimiento mínimo se deberá acreditar mediante la superación de una prueba preliminar, y solamente aquellos solicitantes que superen la prueba preliminar quedarán admitidos en la convocatoria.

Así mismo, los solicitantes que se presenten a esta prueba y no la superen, también quedarán excluidos de

dira ondorio guztietarako. Beraz, ezingo dira aurkeztu ohiko azterketara.

Atariko proba gainditzeak deialdi honetako azterketetara aurkezteko balio du bakarrik. Emaitza honek ez du baliorik izango ondorengo deialdietarako.

4. oinarria.– Deialdi honetara aurkezteko eskabideak egiteko epea amaitu, eta horiek aztertu ondoren, atariko probarako deia egingo du IVAPek bere web orrian www.ivap.euskadi.net eta bere iragarki taulen bidez. Deiarekin batera atariko proban parte hartu behar dutenen zerrenda jakinaraziko da. Atariko proba lurraldeka egingo da eta langile bakoitzak eskaeran jarri duen lurraldean egingo du.

Hizkuntza-eskakizun bakoitzaren atariko proba zuzendu ondoren, emaitza IVAPen web orrian argitaratuko da.

Atariko proba egitera deitutakoen zerrendan agertu eta proba horretara aurkezten ez direnak, deialdiko baztertuen zerrendan agertuko dira ondorio guztietarako.

5. oinarria.– Laugarren hizkuntza-eskakizuneko azterketa, lanpostuan hizkuntza-eskakizun hori daukaten langileek, lanpostuan 3. hizkuntza-eskakizuna edukita 3. hori egiaztatu edo honen baliokidea den tituluren bat lortu duten langileek eta, azkenik, betetzen duten lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna edozein izanda ere, gutxienez erdi mailako titulazioa izan eta 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu edo honen baliokidea den tituluren bat lortu duten langileek egin ahal izango dute.

Lanpostuan oraindik hizkuntza-eskakizunik ezarrita ez daukaten langileen kasuan, 4. hizkuntza-eskakizuneko azterketa egin ahal izateko unibertsitateko erdi mailako edo goi-mailako titulazioa eta 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta edo honen baliokidea den tituluren bat izatea eskatuko da.

Osakidetzako langile finko eta interinoek, oinarri honetako baldintzak betetzeaz gain, 2008ko martxoaren 14ko dataz, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak eta Osakidetzak hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko arloan sinatutako Akordioak zehazten dituen baldintzak bete beharko dituzte.

Hizkuntza-eskakizun honetara aurkezteko unibertsitateko erdi mailako edo goi-mailako titulazioa beharrezkoa den kasuetan, lehenengo aldiz aurkezten diren langileek eskabidearekin batera tituluaren kopia bidali beharko dute. Modu berean, lehenengo aldiz aurkeztu eta 3. hizkuntza-eskakizunaren baliokidea den tituluren bat daukatenek honen kopia ere bidali beharko dute.

6. oinarria.– Azterketa egiteko egokitzapenak behar dituzten azterketarigaiek eskari-orrian adierazi behar

la convocatoria a todos los efectos. Por consiguiente, no podrán realizar el examen ordinario.

La superación de la prueba preliminar tendrá validez únicamente para presentarse a los exámenes de esta convocatoria. Este resultado en ningún caso tendrá validez para futuras convocatorias.

Base 4.ª.– Finalizado el plazo de realización de solicitudes para presentarse a esta convocatoria, y una vez analizadas éstas, el IVAP hará el llamamiento para la realización de la prueba preliminar a través de su página web www.ivap.euskadi.net en el apartado correspondiente a Euskera subapartado de Perfiles lingüísticos y de sus tablones de anuncios. En dicho llamamiento incluirá la lista de solicitantes que deben presentarse a la prueba preliminar. La prueba preliminar se realizará por territorios y cada solicitante realizará dicha prueba en el territorio que haya solicitado el examen.

Una vez corregida la prueba preliminar correspondiente a cada perfil lingüístico, se publicarán los resultados de la misma en la página web del IVAP.

Aquellos solicitantes que figuren en la lista de convocados a la prueba preliminar y no se presenten a la misma, quedarán excluidos de la convocatoria a todos los efectos.

Base 5.ª.– Podrán realizar el examen correspondiente al perfil lingüístico 4 aquellas personas cuyo puesto de trabajo tenga asignado dicho perfil lingüístico, aquellas cuyo puesto de trabajo tenga asignado el perfil lingüístico 3 y hayan acreditado ya éste o posean un título equivalente y, por último, aquellas personas que teniendo acreditado el perfil lingüístico 3 o poseyendo algún título equivalente tengan como mínimo una titulación universitaria de grado medio, con independencia del perfil lingüístico asignado a su puesto de trabajo.

En el caso de los trabajadores que todavía no tengan asignado ningún perfil lingüístico en el puesto de trabajo, podrán realizar el examen correspondiente al perfil lingüístico 4 quienes tengan una titulación universitaria de grado medio o superior y tengan acreditado el perfil lingüístico 3 o posean un título equivalente.

Los trabajadores fijos e interinos de Osakidetza, además de cumplir los requisitos de esta base, tendrán que cumplir los requisitos establecidos en el Acuerdo firmado por el Instituto Vasco de Administración Pública y Osakidetza, con fecha 14 de marzo de 2008, en materia de acreditación de perfiles lingüísticos.

En los casos en que para poder presentarse a este perfil lingüístico sea necesaria una titulación universitaria de grado medio o superior, aquellos que se presenten por primera vez tendrán que enviar junto con la solicitud una fotocopia del título. Del mismo modo, aquellos que se presenten por primera vez y tengan un título equivalente del perfil lingüístico 3, también deberán mandar una copia del mismo.

Base 6.ª.– Los solicitantes que necesiten alguna adaptación para la realización del examen, deberán

dute hori. Azterketarigai hauei hizkuntza gaitasun berdina eskatuko zaie.

7. oinarria.– Azterketak zuzendu eta neurtuko dituzten epaimahaikide titularrak eta ordezkoak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak izendatuko ditu ebazpen bidez. Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuari jarraituz, epaitu beharreko proben edukiak nolakoak diren kontuan hartuta osatuko da Epaimahaia. Epaimahaikiderik gehienak karrerako funtzionarioak edo langile finkoak izango dira eta 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izan beharko dute.

Nolanahi ere, epaimahaiburua Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Euskalduntze zerbitzuburua edo berak izendatutako ordezkoa izango da eta idazkaria Zerbitzu bereko teknikari bat.

Epaimahaiak barne-jarduerarako hartutako arauen kalterik gabe, egoki ikusten dituen laguntzaileak izendatuko ditu.

8. oinarria.– Azterketetan parte hartzekotan, eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den biharamunetik hasita, 15 egun naturalekoa izango da.

Eskabideak, epe horren barruan, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak beren-beregi prestatutako eskabide-orriaren bidez aurkeztu beharko dira.

Eskabide-orria deialdi honen II eranskinean eta Interneteko www.ivap.euskadi.net helbideko Euskara atalaren Hizkuntza-eskakizunak azpiatalean eskainiko da. Eusko Jaurlaritzako langileek Intraneteko Jakina atariko webs EEAA eta BBPP atalaren barruan ere eskuratu ahal izango dute.

Interesatuek Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen edozein egoitzatan aurkeztuko dute eskabidea. Hona hemen helbideak:

Donostia-San Sebastián kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz.
Errekalde zumarkalea, 18. 48009 Bilbao.
Prim, 7. 20006 Donostia-San Sebastián.
Unibertsitateko etorbidea. 20560 Oñati.

Halaber, eskabideak aurkez daitezke Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluak dioen edozein eratan.

Eusko Jaurlaritzako langileek era elektronikoan ere egin ahal izango dute deialdi honetarako eskabidea. Horretarako, langileek intraneteko Jakina atarian Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ezarritako helbide honetara jo beharko dute: http://www9.ivap.jakina.ejgvdns/he/indice.html. Helbide honetara jo baino lehen, interesatuak XL-Nets segurtasuneko sisteman sartu behar du.

constatarlo en la solicitud. La adaptación requerida no supondrá una reducción de la aptitud exigible.

Base 7.ª.– Los miembros titulares y suplentes del Tribunal encargado de calificar los exámenes serán nombrados por Resolución del Director del Instituto Vasco de Administración Pública. Según lo dispuesto en el Decreto 86/1997 de 15 de abril, la composición del Tribunal se ajustará al contenido de las pruebas que les corresponda juzgar, y los miembros que lo integren mayoritariamente serán funcionarios de carrera o personal laboral fijo que tengan acreditado el perfil lingüístico 4.

En cualquier caso, actuará como Presidenta la Jefe del Servicio de Euskaldunización del Instituto Vasco de Administración Pública o persona en quien delegue y como Secretario un técnico adscrito a dicho Servicio.

Sin perjuicio de las reglas internas de funcionamiento que adopte el Tribunal, éste nombrará los asesores que considere necesarios.

Base 8.ª.– El plazo para la presentación de solicitudes para la realización de los exámenes de acreditación será de 15 días naturales y se iniciará al día siguiente de la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la presente Resolución.

Las solicitudes habrán de presentarse dentro del citado plazo utilizando el impreso de solicitud preparado a tal efecto por el Instituto Vasco de Administración Pública.

El impreso de solicitud se facilitará en el anexo II de esta Resolución y en la siguiente dirección de Internet: www.ivap.euskadi.net en el apartado correspondiente a Euskera subapartado de Perfiles lingüísticos. Los trabajadores del Gobierno Vasco la tendrán también a su disposición en el portal Jakina de la intranet, dentro del apartado webs OOAA y SSPP.

Las solicitudes se entregarán en cualquiera de las sedes del Instituto Vasco de Administración Pública. Las direcciones son las siguientes:

Calle Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz.
Alameda de Recalde, 18. 48009 Bilbao.
Calle Prim, 7. 20006 Donostia-San Sebastián.
Avenida de la Universidad. 20560 Oñati.

Asimismo, las solicitudes podrán presentarse de cualquiera de las formas indicadas en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Los trabajadores del Gobierno Vasco también tienen la posibilidad de cumplimentar la solicitud para esta convocatoria por vía electrónica, a través de la intranet. Para ello los trabajadores deberán acceder a la siguiente dirección que el Instituto Vasco de Administración Pública ha dispuesto en el portal Jakina de la intranet: http://www9.ivap.jakina.ejgvdns/he/indice.html. Para acceder a esta dirección, el interesado tiene que entrar previamente en el sistema de seguridad XL-Nets.

Eskabidea era elektronikoan egin duen langileak ez du paperezko eskabidea aurkeztu behar.

9. oinarria.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak antolatutako deialdietara lehenengo aldiz aurkezten direnek, edota inoiz aurkeztu arren ondoren lanpostuz aldatu direnek, eskabidearekin batera, jarraian zehazten diren agiriak aurkeztu beharko dituzte, hizkuntza-eskakizunen erregistroaren ondorioetarako:

Nortasun Agiriaren fotokopia.
Funtzionario-izendapenaren edo lan-hitzarmenaren fotokopia.

Dokumentu horiek aurkezterik ez duten langileek funtzio publikoko gaietan eskumena duen organo titularraren ziurtagiria bidali beharko dute, beren lan-egoera ziurtatzeko.

10. oinarria.– Eskabideak aurkezteko epea amaitu, eta atariko probaren emaitzak jakinarazi ondoren, onartutako eta baztertutako azterketarigaien behin-behineko zerrenda erabakiko du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendari jaunak, eta bere ebazpen baten bitartez jakinaraziko da. Ebazpen hori Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen web orrian argitaratuko da.

Onartutako eta baztertutako azterketarigaien behin-behineko zerrenda Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, 7 egun naturaleko epea izango dute interesatuek erreklamazioak aurkezteko. Erreklamaziook idatziz aurkeztu behar zaizkio Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariari.

11. oinarria.– Epea amaituta erreklamaziorik ez bada, onartutako eta baztertutako azterketarigaien behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da.

Erreklamaziorik egon bada, aurkeztutakoak aztertu eta ebatzi ondoren, onartutako eta baztertutako azterketarigaien behin betiko zerrenda argitaratuko da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen web orrian. Azterketak egiten direnerako behin betiko zerrenda argitaraturik ez badago, erreklamazioa aurkeztu duten azterketarigaiek azterketa egin ahal izango dute. Azterketa honek, ordea, ez du inolako baliorik izango azterketarigaia baztertuta gelditzen bada.

12. oinarria.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak egokituko du azterketen egutegia eta azterketak egiteko tokiak, eskaera-kopurua eta azterketak egiteko behar diren baliabideak kontuan hartuta.

Azterketen egunak, lekuak eta orduak epaimahaikideak izendatzeko ebazpenean bertan jakinaraziko dira, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen web orrian.

Ebazpenean zehazten diren azterketa egunak eta tokiak dira ofizialak eta azterketariek onartuta dauden hizkuntza-eskakizunari egokitutako egunean eta tokian bakarrik egin ahal izango dute azterketa.

El trabajador que ha realizado la solicitud por vía electrónica no debe presentar la solicitud en soporte de papel.

Base 9.ª.– Quienes se presenten por primera vez a las convocatorias organizadas por el Instituto Vasco de Administración Pública y/o quienes, habiéndose presentado en alguna ocasión, hayan cambiado posteriormente de puesto de trabajo, deberán adjuntar a la solicitud la documentación que se indica a continuación a los efectos del registro de acreditaciones:

Fotocopia del DNI.
Fotocopia del nombramiento de funcionario o del contrato laboral.

Los trabajadores que no puedan presentar estos documentos deberán enviar una certificación del titular del órgano competente en materia de función pública que acredite su situación laboral.

Base 10.ª.– Una vez dados a conocer los resultados de la prueba preliminar en la página web del Instituto Vasco de Administración Pública, el Director del Instituto Vasco de Administración Pública aprobará la relación provisional de aspirantes admitidos y excluidos, y la dará a conocer por medio de una resolución. Esta resolución se publicará en la página web del Instituto Vasco de Administración Pública.

A partir del día siguiente a la publicación de la relación provisional de admitidos y excluidos en la página web del Instituto Vasco de Administración Pública, los interesados dispondrán de un plazo de 7 días naturales para formular reclamaciones. Dichas reclamaciones deberán dirigirse por escrito al Ilmo. Sr. Director del Instituto Vasco de Administración Pública.

Base 11.ª.– Una vez finalizado el plazo, si no hay ninguna reclamación, la lista provisional de solicitantes admitidos y excluidos se hará definitiva.

En el caso de que haya habido alguna reclamación, después de examinar y resolver las presentadas, se publicará la relación definitiva de solicitantes admitidos y excluidos en la página web del Instituto Vasco de Administración Pública. Si para la fecha de realización de los exámenes no se hubiese publicado dicha lista, los aspirantes que hubiesen presentado alguna reclamación podrán realizar el examen, si bien éste sólo tendrá validez en el caso de que el aspirante sea finalmente admitido.

Base 12.ª.– El Instituto Vasco de Administración Pública elaborará el calendario de los exámenes así como los lugares para su realización en función del número de solicitudes y de los recursos necesarios para su realización.

Las fechas, lugares y horas de realización de los exámenes se publicarán en la página web del Instituto Vasco de Administración Pública en la misma resolución en la que se nombra a los miembros del Tribunal.

Las fechas y los lugares establecidos en la resolución son oficiales y los examinandos únicamente podrán realizar el examen del perfil lingüístico para el que están admitidos en la fecha y lugar correspondiente.

Azterketa egin ahal izateko derrigorrezkoa da azterketariak NAN agiria edo pasaportea aurkeztea.

13. oinarria.– Hizkuntza-eskakizun bakoitzean eskatuko den ezagupen-maila neurtzeko ondorengoak hartuko dira kontuan: batetik, 86/1997 Dekretuaren 13.2 artikuluan eta eranskinean hizkuntza-eskakizun bakoitzerako zehaztutako hizkuntza-gaitasunak; eta, bestetik, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiaren 1990eko uztailaren 5eko Ebazpenean hizkuntza-eskakizun bakoitzerako ezarritako egitarauak.

14. oinarria.– Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketen kalifikazioa orokorra izango da, hau da, «gai» edo «ez gai», trebetasun bakoitzerako gaitasuna ere adieraziko delarik.

15. oinarria.– Azterketen behin-behineko emaitzak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpen bidez jakinaraziko dira eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira. Emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, 5 egun naturaleko epea izango dute interesatuek erreklamazioak aurkezteko Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren aurrean.

Epe hori igaro ondoren, erreklamaziorik aurkeztu ez duten azterketarien emaitzak behin betiko bihurtuko dira eta hizkuntza-eskakizunen egiaztapen hauek ondorioak izango dituzte emaitzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako egunetik hasita.

Emaitzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen diren egun berean, argitaratuko dira Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen web orrian ere.

16. oinarria.– Emaitzen kontrako erreklamazio epea amaituta, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak aurkeztutako erreklamazioak onartuz edo gaitzetsiz ebatziko ditu. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Ebazpen horren kontra gora jotzeko errekurtsoa ezarri ahal izango zaio Ogasun eta Herri Administrazio sailburuari, berau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

Epe hori igarota, errekurtsorik aurkeztu ezean, erreklamazioen ondorioz erabakitako emaitzak behin betiko bihurtuko dira eta hizkuntza-eskakizunen egiaztapenek ondorioak izango dituzte emaitza hauek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako egunetik hasita.

17. oinarria.– Proba hauen bidez hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatzen dutenek Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren ziurtagiria jasoko dute.

18. oinarria.– Hizkuntza-eskakizunen egiaztapenaren jarraipena eta kudeaketa egiteko, deialdian parte hartuko dutenen datu pertsonalak tratatu eta argitara

La presentación del DNI o del pasaporte por parte de los examinandos será imprescindible para la realización de la prueba.

Base 13.ª.– El nivel de conocimiento de euskera exigido en cada perfil lingüístico se evaluará teniendo en cuenta lo siguiente: la competencia lingüística definida para cada perfil en el artículo 13. 2 y en el anexo del Decreto 86/1997, así como los programas establecidos para cada perfil lingüístico en la Resolución de 5 de julio de 1990 de la Secretaría General de Política Lingüística.

Base 14.ª.– La calificación de los exámenes de acreditación de perfiles lingüísticos será global y se dará en la forma de «apto» o «no apto», especificándose la aptitud en cada destreza lingüística.

Base 15.ª.– Las calificaciones provisionales de los exámenes se darán a conocer mediante resolución del Director del Instituto Vasco de Administración Pública y serán publicadas en el Boletín Oficial del País Vasco. A partir del día siguiente al de la publicación de dichas calificaciones provisionales, los interesados dispondrán de un plazo de 5 días naturales para formular las reclamaciones ante el Director del Instituto Vasco de Administración Pública.

Finalizado ese plazo, las calificaciones de los examinandos que no hubieran presentado ninguna reclamación se harán definitivas. Los efectos relativos a la acreditación de los perfiles lingüísticos se producirán desde la publicación de los resultados de las pruebas en el Boletín Oficial del País Vasco.

La publicación de las calificaciones en la página web del IVAP se realizará el mismo día que se publique en el Boletín Oficial del País Vasco.

Base 16.ª.– El Director del Instituto Vasco de Administración Pública dictará resolución admitiendo o desestimando las reclamaciones presentadas contra las calificaciones obtenidas. Esta resolución se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra esta resolución se podrá interponer recurso de alzada ante la Consejera de Hacienda y Administración Pública en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Una vez finalizado ese plazo, en el caso de que no se hubiera interpuesto ningún recurso, las calificaciones obtenidas como consecuencia de las reclamaciones se harán definitivas y los efectos relativos a la acreditación de los perfiles lingüísticos se producirán desde el día de la publicación de dichas calificaciones.

Base 17.ª.– Quienes superen las pruebas de acreditación de perfiles lingüísticos recibirán una certificación del Director del Instituto Vasco de Administración Pública.

Base 18.ª.– Con el objeto de realizar el seguimiento y gestión de las acreditaciones de perfiles lingüísticos se procederá al tratamiento y publicación de datos perso-

emango dira, ebazpen honek ezarritakoaren arabera (eskabideak, onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendak eta behin betikoak, azterketen emaitzak…).

Deialdi honetan parte hartzen dutenek baimena ematen dute datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko.

Datu pertsonalak erabiltzeko, Datu Pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoa eta ekainaren 11ko 994/1999 ED bidez onartutako datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurriei buruzko araudiak ezarritakoa beteko da.

Izaera pertsonaleko datuen fitxategi baten egongo da jasota informazioa eta datuak jakiteko, zuzentzeko, ezabatzeko edo datuen aurka egiteko eskubideak baliatu nahi izanez gero, IVAPeko Idazkaritza Nagusira jo behar da: Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

19. oinarria.– Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako deia egiten duen Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren Ebazpen honen kontra, lehen aipatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta hurrengo artikuluen arabera, Ogasun eta Herri Administrazio Saileko sailburuaren aurrean gora jotzeko errekurtsoa ezarri ahal izango da, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

nales de quienes participen en la convocatoria, en los términos de esta Resolución (solicitudes, listas provisionales y definitivas de admitidos/as y excluidos/as, resultados de exámenes…).

Quienes participan en esta convocatoria autorizan el tratamiento y publicación de tales datos personales.

El tratamiento de los datos personales se llevará a cabo según lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre que regula la Protección de Datos de Carácter Personal, así como en la normativa sobre medidas de seguridad de los ficheros automatizados que contienen datos personales, aprobada mediante RD 994/1999, de 11 de junio.

La información estará incluida en un fichero de datos de carácter personal y se podrán ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose a la Secretaría General del IVAP: calle Donostia-San Sebastián, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz.

Base 19.ª.– Contra la presente Resolución del Director del Instituto Vasco de Administración Pública por la que se convocan pruebas de acreditación de perfiles lingüísticos, podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Hacienda y Administración Pública en el plazo de un mes contado desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, de conformidad con el artículo 114 y siguientes de Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO PROBAK (2008/2)
ESKABIDE-ORRIA
PRUEBAS DE ACREDITACIÓN DE PERFILES LINGÜÍSTICOS (2008/2)
SOLICITUD

ESKATZAILEAREN DATUAK
DATOS DEL SOLICITANTE

1. abizena *Primer apellido*	2. abizena *Segundo apellido*	Izena *Nombre*

Jaioteguna *Fecha de nacimiento*	NAN *DNI*

ERAKUNDEAREN DATUAK
DATOS DE LA INSTITUCIÓN

Erakundea *Institución*	Saila *Departamento*	Zuzendaritza *Dirección*

Helbidea *Dirección postal*	Telefonoa/Luzapena *Teléfono/Extensión*

Parte hartu nahi dut Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak, ebazpenaren bidez, dei egindako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketetan.
Deseo tomar parte en las pruebas de acreditación de perfiles lingüísticos convocadas mediante Resolución del Director del Instituto Vasco de Administración Pública.
Onartu egiten dut ebazpenaren helburua betetzeko (hizkuntza-eskakizunen egiaztapenak jarraitu eta kudeatu) jasoko diren datu pertsonalen tratamendua eta argitalpena. Datu horien tratamendua egingo da abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuak xedatutakoaren arabera. Informazioa erregistratutako fitxategi batean egongo da eta datuetara sartzeko, datuok aldatu eta deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero, IVAPeko Idazkaritza Nagusira jo daiteke: Donostia-San Sebastián kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz (ikus deialdiaren 21. klausula)
Autorizo el tratamiento y publicación de los datos personales que se deriven de esta convocatoria con el objeto de que se pueda realizar el seguimiento y gestión de las acreditaciones de perfiles lingüísticos. El tratamiento de esos datos se llevará a cabo según lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre y en el RD 994/1999, de 11 de junio. La información estará incluida en un fichero de datos de carácter personal y se podrán ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose a la Secretaría General del IVAP: calle Donostia-San Sebastián 1; 01010 Vitoria-Gasteiz. (ver cláusula 21 de la convocatoria).

Langilearen izenpea *Firma del trabajador o trabajadora*	Erakundea (sinadura) *La institución (firma)*

Data eta tokia *Fecha y lugar*	Erakundea (zigilua) *La institución (sello)*

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO PROBAK (2008/2)
ESKABIDE-ORRIA
PRUEBAS DE ACREDITACIÓN DE PERFILES LINGÜÍSTICOS (2008/2)
SOLICITUD

LANPOSTUAREN DATUAK (Orain betetzen duzun lanpostuaren datuak)
DATOS DEL PUESTO (Datos del puesto que ocupa actualmente)

Lanpostu-zerrendan agertzen den lanpostua
Puesto incluido en la Relación de Puestos de Trabajo (RPT)

Lanpostuaren izena *Denominación del puesto*	Lanpostuaren kodea *Código del puesto*	Dotazio-zenbakia *Número de dotación*

Lanposturik gabe Lanpostu Zerrendan ☐
Sin puesto en la RTP

Hizkuntza-eskakizuna
Perfil lingüístico
1 ☐ 2 ☐ 3 ☐ 4 ☐

Derrigortasun-data
Fecha de preceptividad

Hizkuntza-eskakizunik gabe ☐
Sin perfil lingüístico

LAN EGOERA
SITUACIÓN LABORAL

EAEko herri-administrazioko langileak
Personal al servicio de las administraciones de la CAPV

Karrerako funtzionarioa ☐
Funcionario/a de carrera

Lan-kontratu finkoduna ☐
Laboral fijo/a

Praktikaldiko funtzionarioa ☐
Funcionario/a en prácticas

Bitarteko funtzionarioa ☐
Funcionario/a interino/a

Aldi baterako lan-kontratuduna ☐
Laboral temporal

Kidegoa, eskala edo maila
Cuerpo, escala o categoría

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO PROBAK (2008/2)
ESKABIDE-ORRIA
PRUEBAS DE ACREDITACIÓN DE PERFILES LINGÜÍSTICOS (2008/2)
SOLICITUD

EAEko Justizia Administrazioko Karrera Judizialeko, Karrera Fiskaleko eta Idazkari Judizialen Kidegoko kideak
Miembros de la Carrera Judicial, Carrera Fiscal y Secretarios Judiciales de la Administración de Justicia de la CAPV

Karrera Judizialeko kidea *Miembro de la Carrera Judicial*	☐	Karrera Judizialeko kidegaia *Aspirante a la Carrera Judicial*	☐	Ordezko magistratua *Magistrado suplente*	☐
Behin-behineko epailea *Juez de provisión temporal*	☐	Ordezko epailea *Juez sustituto*	☐	Bake-epailea *Juez de Paz*	☐
Karrerako fiskaleko kidea *Miembro de la Carrera Fiscal*	☐	Ordezko fiskala *Fiscal sustituto*	☐	Karrera Fiskaleko kidegaia *Aspirante a la Carrera Fiscal*	☐
Idazkari judiziala *Secretario Judicial*	☐	Behin-behineko idazkari judiziala *Secretario Judicial de provisión temporal*	☐	Idazkari Judizialen kidegaia *Aspirante al cuerpo de Secretarios Judiciales*	☐

ESKATUTAKO HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA
PERFIL LINGÜÍSTICO SOLICITADO

1. edo 2. HE eskatu baduzu, zein azterketa-eredu nahi duzu?
Si ha solicitado el perfil 1 ó 2, ¿qué modelo de examen desea?

1 ☐ 2 ☐ 3 ☐ 4 ☐

1. edo 2. HE eskatu baduzu, zein azterketa-eredu nahi duzu?
Si ha solicitado el perfil 1 ó 2, ¿qué modelo de examen desea?

BATUAZ ☐ BIZKAIERAZ ☐

☐ ☐ ☐ ☐

Non egin nahi duzu azterketa?
¿Dónde desea realizar el examen?

ARABA ☐ BIZKAIA ☐ GIPUZKOA ☐

ELBARRITASUNA
MINUSVALÍA

Azterketa egiteko egokitzapenen bat behar baduzu, adierazi zein:
Si necesita alguna adaptación para realizar el examen, indique cuál:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO PROBAK (2008/2)
ESKABIDE-ORRIA
PRUEBAS DE ACREDITACIÓN DE PERFILES LINGÜÍSTICOS (2008/2)
SOLICITUD

4. hizkuntza-eskakizunera aurkeztu nahi dutenentzat bakarrik
A cumplimentar sólo por quienes deseen realizar el examen de perfil lingüístico 4

3. HEren baliokidea den tituluren bat daukat ☐ *Zein?
Tengo un título equivalente al perfil 3 **¿Cuál?* .....

Erdi mailako edo goi-mailako titulazioa daukat ☐ *Zein?
Tengo titulación media o superior **¿Cuál?* .....

AIPA ITZAZU ZURE LANPOSTUA KOKATUTA DAGOEN ARLO EDO ZERBITZUAREN HIRU EGINKIZUN NAGUSIAK:

- .....
- .....
- .....

AIPA ITZAZU ZURE LANPOSTUAREN HIRU EGINKIZUN NAGUSIAK:

- .....
- .....
- .....

*Fotokopia atxiki behar da, aurkezten den lehenengo aldia bada
**Se debe adjuntar la fotocopia si se presentan por primera vez*